

## INDETERMINAZIOARI DATXEKON ADITZA SINGULARREAN

Frase bat indeterminadua dalarik, aditza, berboak singular dalakoan doa. Gaurregun, askok eta askok plural dalako hortan ematen dute, beste askok singular dalako hortan. Zenbait euskalkitan, eta beharbada denetan, bizirik diraute oraindik, honelako esanok: «gizon horrek gauza asko *daki*»; «perian jende asko *zan*»; «gaur ferian arraultza asko saldu *da*»; hamaika gauza ikusi *degu* Tolosalde hortan»; «arrantzaleek arrain asko ekarri *dute*»; «edozein gauza bota *diot* aurpegira»; «zenbat peza balio *du?*»; «pekatu asko egin *dut*, jauna»; «*eztut* gizonik ikusi»; «orain *dala* urte asko»; «zenbat kanika *dago* hor»?; eta honelako millaka eta millaka.

Numeralekin, gutxi asko, galdurik edo dago Bizkaia-n, Gipuzkoa-n eta gure ustez, Lapurdi-n ere bai. Ez Zuberoa-n ez eta Baxenabarre-n ere. Adibidez, guretzat gutzit arkaikoa dan honelako asko entzuten da eskualde hartan: «Bi ardi galdu da mendian». Bai Gipuzkoa-n ere; «zenbat pagatu duzu?» «Bost peza pagatu du».

Gure ustez, puntu honetan ere, ahal dalarik, beharko genuke batasuna egin. Gauza erreza da: orazioa indeterminadua denean, berboak singularrean eman eta kito!

*Aditz indeterminazioa*

Nork ez du entzun honelakorik bai Gipuzkoa'n bai Bizkaia'n:

txoria harrapatu dut ... ..	harrapa zak hori.
eskua sakelan sartu dut ... ..	sar hadi hor!
harria kendu dut ... ..	ken hadi hortik!
ogia hartu dut ... ..	har zak!
izugarritzak gertatu da ... ..	zeruan gerta dedilla.

Aita gurea esaten dugunean, honelaxe diogu: *barka* zaizkiguzu gure zorrak... *libra* gaitzazu... eta ez *barkatu* eta *libratu*.

Askotan entzun dugu honoko otoitz txiki eta polit hau: «Jainkoak egun on eta berri on deigula; berri onez, *berri* gaitzala».

Puntu hontan egiazki berezia agertzen da gure hizkuntza. Euskal literatura zaharrean bizi bizirik irau du; egungo egunean, bizi bizirik dirau mugaz beste aldeko, Euskal Herrian. Hemen asko galdu da. Ez erabat. Ez diteke galtzen utzi!

*Nola erabili behar dan*

Har dezagun aditz bat: «sar, sartu». *Sartu*, partizipio da; *sar* berriz, erroa, muiña. Noiz esan behar da *sartu*, partizipioa alegia? *Aditzaren egiña, esan nahia, gertatu danean, erabiltzen da partizipioa.*

«Eskua sakelan sartu dut». Bai, hala da, eskua sakelan sarturik dut jadanik.

«Ogia ekarri dut». Noiz ez dakit, baiñan ekarri dut. Aditzaren forma, egiazkoa da, reala.

Noiz esan behar da *sar*, erroa alegia? Aditzaren egiña, esan nahia, eginkizun, gertakizun dagoenean.

«Eskua sakelan *sar* nezake». Hots, oraindik ez dut *sartu*, eginkizun da beraz.

«Gero *etor* diteke». Oraindik ez da *etorri*, etortzeko dago, *etorkizun* alegia.

*Partizipioa, modu indikatiboan erabili behar da, besteetan erroa*

Partizipiorik gehienak, *tu* dalakoan bukatzen dira. *Tu* hori kenduaz erroa sortzen da.

Jarraitu ... .. jarrai.

Sartu ... .. sar.

Galdu ... .. gal.

I-tan bukatzen diran partizipioak, *i* hori kenduz gertatzen da erroa.

Ikusi ... .. ikus.

Eskeini ... .. eskein.

Ekarri ... .. ekar.

Baiñan, *busti, senti, jeiki, ilki, iraungi*, eta *jalgik*, ez dute *i* hori galtzen.

Jaiki naiz ... .. jeiki naiteke.

Busti da ... .. bus zitekean.

*A, e, o, l, n-z* bukatzen diranak ere ez dute aldakuntzarik. Adibidez: *bete dut eta bete dezake; jaio da eta jaio liteke; hil nuen eta hil nezakean; egon naiz, egon nintekean.*

*Zenbait ohar.*

*Ahal.* Berbo honek erroa behar du.

*Sar* ahal baledi.

*Ikus* ahal dezan.

*Ikas* ahal dezadan.

*Nahi.* Nere eskuetan ez dudan zerbait gertatzea nahiko nuke, baina ez da gauza segurua gertatuko danik. *Erroa* behar du beraz.

*Nahi* baduzu *etor* dedin.

*Zeruan sar* dedin nahiko nuke.

*Ohi.* Aditzaren egiña behin eta berriz gertaturik danez gero, partizipioa behar da.

Leize zuloan *gertatu* ohi da.

*Arrapatu* ohi dute.

*Gertatu* ohi da.

*Behar.* Partizipioa eskatzen du beti, gure ustez.

*Bi aa-z, bi ii-z, bi oo-z hasten diran hitzak.*

Horrelako hitz asko da euskeraz. Mugaz haindikoez horrela idatzi izandu dituzte eta oraindik ere esan eta idazten dituzte. Gure artean, nahaspilla zerbait izan bada ere, askok mugaz bestaldekoek bezala idatzi izan dute. Entzun berriz, danetatik entzuten da. Egia da askotan *zar* esaten duguna, baiñan egia ere da, *zahar, ohol, ahaztu* eta abar ere beste askotan esaten ditugula.

Behar beharrezkoa da, puntu hontan eginik zegoen batasuna apur ez dezagun.

Hemen, Baiona-n egin zan Biltzarrerakoan presentatu ziran hitzak:

ahaide	mahain/mahai
ahal izan	mahats
ahalge	mehe
aharra	mihi
abate	naharo
ahantzi/ahaztu	nahasi
ahari	ohol
bihi	ohore
beheko/beheti	ohoin
ihintz	xehe/txehe/txehetu
lehen (astelehen)	zahar
leher egin	haatik

#### *A edo e eufonikak*

«Nindeken, gindezken, zekidaken, zekiguken, nun, genun, nezaken, genezaken, nezaioken, nenkarke, dula, dun, eta abar eta abar... orain askok horrela esaten ditugu, idatzi ere bai sarritan. Baiñan orain arteko idazle gehienek, beti eta beti honela eman dutzte berbo forma hoiek: nindekean, gindezkean, zekidakean, zekigukean, nuan-nuan, genuan-genuen, nenkarkean, genekarkean, duala-duela, nuana-nuena... eta ctc.

Tartean sartzen dugun *a* edo *e* eufonika deritzagu. Komeni litzake, hemendik aurrera horrela idaztea, eta beste zera hoiek, «niin, nun, non-eta» zakuan betiko sartzea.

#### *Lokalismoak*

Garbi dago gure ustez, euskeraren batasuna nahi dugunok, ezin genitzakeala onar.

Zein lokalismo? Orain arte euskal literaturan erabili diran hitzen edo aditzen formei ezertxo ere erasten ez dien hitz edo berbo formak. Ba da holakorik euskal herrietan: gaba, habek, bostian, harekilan, hemendikan, amak esan do, hemendio, etxetio, kristauba, premiya, ikusiyaz... eta abar. Egia da herriak horrelako asko erabiltzen duela, esaten duela, baiñan egia ere da, euskal literatura zaharrean eta oraingoan ere, ez dutela sarrerarik ia izan. Horiek eta honelako beste asko, horrela idatzi dira: gaua, hauek, bostean, harekin, hemendik, amak esan du, etxetik, kristau-giristinoa, premia-premiña, ikusiaz.

«Tikan eta rikan» eta horrelakorik Gipuzkoa-ko puska haundi batetan esaten dira, bertsolariek maiz darabilzkite, bai mugaz bestaldeko eta hemengo autore zaharrek ere idatzi dituzte, baiñan, batasunaren izenean, hobe zitekean naski, orain berri, denontzat agertu dan liburuan gutxiago erabili baziran, «tikan», hori batez ere.

Beste alde, egia da lokalismo horiek, dauden daudenean, erabil ditezkeala. Noiz? Joxe Migel Barandiaran apaiz jaunak eman digu ejenplorik onena. Herriaren ipuiak, esaerak eta aztikeriak biltzen ibili dalarik, herriak eman dizkion bezelaxe bildu eta zabaldu nahi izan ditu.

Joan San Martin jaunak, «Zirikadak» eta «Eztenkadak» eskribitu zituanean, Eibar-en erabiltzen ziran hitz eta aditz forma askoz baliatu zan. Hori oso ondo baitago!

Bada beste gauza bat ere. Oraindik ere, lekuan lekuko asko da, beste lekuetan oso gutxi erabiltzen diranak, baiñan, berboei-eta zerbait berririk erasten dietenak. Gipuzkoa-ko eskualde batean, asko esaten dira forma hok: «goazemak, goazeman, goazemazu, goazemazue». *Goazen* «vamos» bada, *goazemak* «vámonos tú» baita, eta *goazemazute* «vámonos ustedes», eta beraz, «goazen» horri zerbait baiño gehiago erasten baitio.

«Goazemak eta goazemazuei» buruz esan duguna, beste anitz hitzez eta formez esan diteke. Behar baitira berpiztu!

S. Garmendia.

### JAZINTO CARRASQUEDO OLARRA 1965 URTEKO «TORIBIO ALZAGA» TEATRO SARIAREN IRABAZLE

Epai-maia'koak ao batez erabaki dute saria «Laratzean sua» iru ekitaldi dituan Teatro lanari ematea, besteak baño obegotzat jotzen dutelako. Egillea, Carrasquedo Olarra jauna da. Orobat erabaki dute aipamen berezia merezi dutela beste iru antzerki-lan auxcek: 1. «Nor errudun?», Xabier Gereño jaunarena. 2. «Brokel jauna», J. Antonio Arkotxa jaunarena. 3. «Biotzaren neurria», Pedro Sarriegi jaunarena.

Donostia'n, 1965 agorraren 24'n, Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, Agustin Zubikarai, Gabriel Aresti.

### GABRIEL ARESTI 1965 URTEKO «LIZARDI» POESIA SARIAREN IRABAZLE

«Euskal-harria» lanarekin irabazi zuen Gabriel Aresti-k «Lizardi» saria. Iru boto izan zituen. Luis Maria Mujika-k boto bat «Nire errotatik» lanagatik eta Antonio Bilbao Monasterio-k beste bat «Bi ta bi lau ta bi... zortzi»-gatik. Juradua: M. Lekuona, P. Lafitte, J. San Martin, N. Etxaniz eta M. Lasa.

### MANUEL MATXAIN 1965 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN IRABAZLE

Honela erabaki zan:

1. Manuel Matxain, Salvatore Mitxelena zanari jarritako bertsoakatik, kontuan izanik gaiñera beste sorta on asko aurkeztatu dituela.

2. Inozenzio Olea, eiztariai jarritako amalau bertsoatik.

3. Jesus Lete «Ibai-ertz», asto bati jarritako amasei bertsoatik.

4. Gillermo Albizu, bildots bati jarritako amalau bertsoatik.

Juradua: J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, Aita A. Zavala, Basarri, Bordari, A. Irigoyen, J. San Martin, Juan Mari Lekuona eta A. Arrue.